

# EZAGUTU DEZAGUN LESAKA 2025

## 1-2. mailakoentzako GALDETEGIA



Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Taldearen izena: \_\_\_\_\_ Maila: \_\_\_\_\_

- 1- Zeintzuk izan dira VI. LML-ko bazkide irabazleak?
- 2- Lesakako mendi lasterketan ze bi tontor igotzen dituzte parte-hartzaileek?
- 3- Espiritu txarrak uxatzeko zenbat zaindari ditu MARIGALANTENEA etxeko fatxadak?
- 4- Nola deitzen zaio GILLEMONEA pareko zubiari?
- 5- Zenbat arku ditu Beti Gazteren Egoitza dagoen eraikinak?
- 6- Beko-errotako putzu ondoan dagoen nekazaritzarako erremintak ze izen du?
- 7- Ze auzotakoa da argazkian ageri den iturria?
- 8- Gaur egun bide berdea dena trenbidea zen garai batean. Nola deitzen zitzaion bertatik pasatzen zen trenari?
- 9- Zein esaldi irakur daiteke Agiñan dagoen Aita Donostiaren oroimenez eraikitako monumentuan?



10-Nor izan ziren Beti Gazteren himnoaren letra eta musika asmatu zutenak?

11-Zein izen dute Lesakako erraldoiek?

12-Zein izan zen Lesakan telebista jarri zuen lehen ostaturia?

13-Gaur egun Lesakako auzoetan inauterien berri ematen aritzen dira

Goitarrak eta Fraindarrak. Hamarkada batzuk atzera eginez gero, Nabaz auzoko talde bat ere hala aritzen zen. Nola izena zuen taldeak?

14-Zein zenbaki ageri da Alkaiagako frontoiko frontisean?

15-Izenda itzazu Lesakako bi mendi garaienak:

16-Zenbat armari ageri dira Pikabea baserriaren aitzineko aldean?

17-Zein bi Lesakar izan dira aurtengo inauterietan makil luzearekin atera diren bi zaku zaharrak?

18-Zein izen zuten Onin errekek bereizten zituen Lesakako bi auzoak?

19-Nola izena zuen Txipirinea etxabearen urte luzez litxarreriak saldu zituen dendako azken dendariak? Zein gertakariren ondorioz itxi zen denda?

20-Beti Gazteko futboleko emakumezko talde nagusiko hiru izen aipatu eta hauetako baten autografoa lortu eta txertatu.